

Eider Alkorta

POLITOLOGOA

## Garai berriez



tsailaren 7an aldi berri baten atea ireki zen Euskalduna Jauregian, eta aro berri orori dagokion moduan, irakurketek, balorazioek eta sentimenduek kolore anitzak dituzte.

Alderdien Legeak, besteak beste, eta sortutako jurisprudenziak, Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiarenak bereziki, Ezker Abertzalearen estrategiaren birplan-teamendu bat ekarri du. Pragmatismo ariketa argi bat ikusi ahal izan zen Iñigo Iruinek alderdi berriaren Estatutuen nondik norakoak azaldu zituenean.

Ildo honetan, izan ahal diren desadostasun eta kritikarik harago, Ezker Abertzalearen proiektu berriak eta Estatutuen formulazioak, derrigorrez, aipaturiko ebazpen judizialak erreferentziatzen izan behar zituela adierazi zuen. *Zutik Euskal Herriaren* erreflexio estrategikoaren ingurumarian emandako aldaketak, hausturak eta errefuxapenak Ezker Abertzaleak hauteskunde nahiz instituzioetan egoteko behar eta nahia bidezkotu zituzten. Aurretik mezua zabaltzen hasia zen, abenduan bertan Arnaldo Otegi Ezker Abertzalea ez zela erresistitzeko jai, irabazteko baizik zioenean.

Ezker Abertzalearen alderdi berriaren plazaratzeak, denetariko erreakzioak sortu ditu,



INIGO AZKONA



Publikoki behintzat, pozik agertu dira asko, etorkizun itxaropentsu baten ilusioz, amnesia eta etsimen kristau zantzuren bat bada ere. Horrelakoak izaten dira izaera honetako gatazken amaiera edo amaiera hasierak



barruan eta kanpoan. Kanpoan batzuei oina aldatuta harrapatu dietela pentsa daiteke, baina barruan ere. Emanen du baten batzuek saldu nahi izan duten Espainiako Gobernuaren ahultasuna ez zela hainbestekoa eta Ezker Abertzaleak legeak obeditzeaz gain, urte askotan abangoardia izan dena errefusatzen ikusi dugu. Iraganarekiko

haustura bat dela dio Sortuk. Kontuak honela, sentimen nahasiak egon daitezke, beste aukerarik ez zegoenarena ala urrunegi iritsi direnarena. Finean, legeztatze prozesuak bidean utzi dezakeenaren handiestea edota txikiagotzea.

Atzera begiratzeko tentazioa duen edonori esango zaio aurrera begiratzeko garaia dela baina horrek pedagogia eta denbora eskatzen du. Epe motzean ekintza eta adierazpen beretsuak semantikoki zenbat aldatu diren ikusiko zuten norbaitek eta helburu zehatz batzuen lorpenerako “etsaia”ren legetaz baliatzea onargarritzat jotzen dela testuinguru batzuetan. Ez dirudi hautsak gehiegi harrotu direnik eta garai berrian, publikoki behintzat, pozik agertu dira asko, etorkizun itxaropentsu baten ilusioz, amnesia eta etsimen kristau zantzuren bat bada ere. Horrelakoak izaten dira izaera honetako gatazken amaiera edo amaiera hasierak. ■

## TXANDAN

Josu Amezaga



Hala ezagutzen da Espainian filmak doan eskaintzen dituzten webguneak ixtea erraztuko duen araua. Sorkuntzaren aldeko argudioak erabiltzen dira, besteak beste, horretarako; argudio horiek ez zaizkit batere sendoak iruditzen ordea. Filmak doan jaisteak kaltea nori egiten dio begiratu beharra dago, eta honekin egiten dugu topo: Interneten historian gehien deskargatu den filma, zinemaren historian diru gehien bildu duena izan da: Avatar (400 milioi inguruko inbertsioa, 2.200 milioiko bilketa: erdia ekoizleentzako mozkin, dena urtebetean). Ildo beretik, kontuan

## Sinde legea

hartuta Estatuko zinema aretoetan ikusten diren filmeen %70 AEBetakoak direla, pentsa daiteke saretik eskuratzen diren gehienek ere jatorri bera dutela. Horrek esplikatzen du AEBetako Madrilgo enbaxadaren parte-hartzea lege honen sorkuntzan (wikileaks-ek argitaratua).

Hollywoodek munduko gainerako zinemagintza nola zapaltzen duen ikusita, pentsa liteke gehienbat industria horri mesede egiten dion lege batek sorkuntza bultzatuko duenik?

Lekurik ez eta, beste baterako utziko dut auzi honek zinema aretoetako lanpostuekin duen lotura. ■